

loranka


Pasaiaiko herri-aldizkaria

Erreportajea: Lanbide Heziketa Tailerrak

Xosé Estévez
Galiziar bat
Euskal Herrian

2002ko ekaina

28 zenb.



opari zoragarriak eramán itzazu

oakley metala:
oakley gilitzavako eskulua opa

oakley pasta:
oakley pegaina eskulua opa

eta gainera...
oakley erloju baten zozketan sartuko zara

OAKLEY
esklusiban zuretzat



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

MULTIOPTICAS
beti zurekin



ILP.S. Nº 14499 J.L.G.



helmugan gaituzu

Portuan emandako urteek, seguritatea eta eraginkortasuna bermatzen dute zure merkantzia helmugaraino onean iristea.




Pasaiako Portua

Pasaiako Portuko Agintaritza

www.pasaiakoportua.com

GALARDI ALTZARIAK

ZORIONAK PASAITARROK,
ONDO IGARO FESTAK.
GORA SAN FERMIN!



BLAS DE LEZO 7 20110 pasai antxo tlf.: 943 510 599



Gora Jaia! Gora Pasaia!

branka

Pasaia herri aldizkaria

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garzia Urbina
Maketazioa
Urko Etxebeste
Publizitatea
Eñaut Gantxegi TEL.: 689 78 33 17

Argitaratzaileak:
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua: S5-42/2000
ISSN: 1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500 ale
Branka aldizkariak ez du bere gain
hartzeko aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.

KOFRADIA TABERNA

pintxo hotz eta
beroetan
bereztasuna

jai
zoriontsuak
SANPEDROTAR
guztioi

San Pedro kalea 14, 2. Tel.: 943 391 150

Ekarri

Taberna

lagun eta bezero guz-
tiei jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

Gora San Fermin!

Zumalakarregi 10. Tel.: 943 510 008



kupeldegia kalea 2. tel.: 943 526 666

Kur lin ka

taberna

Hamarretxeta 23 Tel.: 943 525 771


BAR ROMERAL

Especialidad en Pintxos

jai zoriontsuak opa dizkizuegu

eskalantegi 40
20017 altza-donostia
tlf.: 943 523 625

IPARRA taberna



Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTZO



Hamarretxeta, 8 PASAIA
Tfno.: 943 51 00 88



Eskalantegi, 40 PASAI ANTZO

Leunda Taberna



- Eguneroko menuak
- Asteburuetakoko afariak

Oarso Kalea 8, 20110 Pasai Antxo
Tlf. 943.51.54.14

IZADI

Taberna



Hamarretxeta 20, 20110 Pasai Antxo
Tlf.: 943 510 750

Jai zoriontsuak denoi!
Gora Pasaia!
Gora San Fermin!

GURE-LURRA KAFETEGIA



Zumalakarregi Kalea, 16
Pasai Antxo
Telf: 943-522129



Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behelaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaia herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaia Udala



Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentua

br-28

3

Laburrean

>5. ZERBITZUAK

>6-11. BARRUTIZ BARRUTI

>12. LEHIAKETA

>14. OROKORREAN

'Laurak Bat' karroza desfilea

>15. ARGAZKI ZAHARRA

>16. ELKARRIZKETA

Xosé Estévez


>20. KALE-INKESTA

Zer duzu gustukoen zure herriko jaietatik?

>22. ERREPOR-TAJEA

Lanbide Heziketa Tailerrak

>26. KRITIKAK



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker
gracias a ti

t

telefono interesgarriak

UDAL ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuak:
943391187

Kultura, euskara eta gazteria:
943400108

Idazkaritza:
943344140

Dirubilketa:
943522150/4

Kontuhartzaitza:
943344157

Diruzaintza:
943344153

Hirigintza:
943344224

Udaltzaingoa:
943400000

Obrak eta zerbitzuak:
943393693

Antxoko Udal Liburutegia:
943515737

Trintxerpeko Udal Liburutegia:
943401053

San Pedroko Udal Liburutegia:
943399348

Pasaia Musikal Udal Fundazioa:
943396055

LARRIALDIK

DYA:
943521557

Gurutze Gorria:
943511605

BAILARAKO EUSKARAZKO
KOMUNIKABIDEAK

Lau haizetera:
943341048

Orratx!
943344626

Branka:
943341045

Oarso Telebista:
943493818/19

Oiartzun Irratia:
943493711

@

interneteko helbideak

PASAIA

Branka herri-aldizkaria:
Branka@euskalnet.net

Alkartasuna Euskal Dantza Taldea:
Alkartasuna_edt.pasaia@euskalherria.znn.com

www.gipuzkoa.net/pasaia/
www.paisvasco.com/pasaia/

EUSKARA

Euskaltzaindia:

www.euskaltzaindia.net

Elhuyar:

www.elhuyar.com

UZEI:

www.uzei.com

IVAP/HAAE:

www.ivap.com

UPV/EHU

www.ehu.es

Udako EuskalUnibertsitatea

www.ueu.org

Euskal Herrian Euskaraz

http://www.geocities.com/capitol-Hill/7012/

Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarte:

www.eizie.org

KOMUNIKABIDEAK

Argia:

www.argia.com

Euskaldunon Egunkaria:

www.egunkaria.com

EITB:

www.eitb.com

BILATZAILEAK

www.jalgi.com

www.aurki.com

www.kaixo.com

INSTITUZIOAK

Eusko Jaurlaritza

http://euskadi.net

www.ej-gv.es

+

Goardiako farmaziak

Uztailaren 2an: Ignacio Ormazabal.
Eskalantegi 32. Pasai Antxo.

Telefonoa: 943 510781

Uztailaren 5ean: Ignacio Ormazabal.
Eskalantegi 32. Pasai Antxo.

Telefonoa: 943 510781

Uztailaren 12an: M^oLourdes Martinez Lagos.
San Juan kalea 22. Donibane. Tel.: 943514645

Uztailaren 16an: M^oTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo.

Tel.: 943 512349


Uztailaren 18an: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo.

Tel.: 943510545

Uztailaren 23an: Egurrola Farmazia. San Pedro.

Uztailaren 25ean: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo.

Telefonoa: 943 510781



besteak

JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK

Ekainean 7 pasaitar hil egin dira, 5 jaiotza egon dira eta 4 ezkontza ospatu dira.

donibane

Hiru Ibai 2002

Ekainaren 24tik 26ra, hain gertu eta era berean hain ezezagun ditugun Oiartzun, Urumea eta Bidasoa ibaiak lotu nahi izan ditugu gure ontzietan eginiko zeharkaldien bitartez.



Lehenengo egunean, arratsaldeko 6ak aldera, Mentxu eta Gemaren trikiti-soinua lagun genuela, Oreretaraino igo ginen, eta bertan utzi genuen Ameriketatik trainerua gaua pasatzen. Hurrengo egunean, eta Arcachondik etorritako hiru ontziekin batera, itsasoz Donostiara joan eta Urumean gora igotzeko asmoa genuen, baina itsasoa haserre zegoen eta Donibaneko plazan geratu behar izan genuen Joxerra eta Florentinok erretako sardinak dastatzen. Igandean berriz, haizea lagun, Hondarribiara ziztu bizian iritsi ginen eta baita Bidasoan gora ia Endarlazaraino.

Ibaiaz gozatu; horixe da Albaola Elkarteak proposatzen dizuena. Ahantzitako aisialdi-baliabide hura erabiltzea, modu horretan baloratzen ikas dezagun, eta ez dezagun berriro estolderia lotsagarri bihurtu.

XII. musika jardunaldiak

Pasa berri diren maiatza eta ekaineko hainbat egunetan Pasai-Donibaneko XII. Musika jardunaldiak ospatu ditugu gure herrian. Aurtengo edizio hau bertako musikoa izan zen Tomas Angel Dadie Manzidorri eskeini zaio. Dadie konpositore eta organista izan zen eta 1902.urtean jaio eta 1975.urtean Donibanen hil zen. Aurtengo musika jardunaldiko egitaraua honako hau izan da:

- Maiatzak 18
GIPUZKOAKO ABESBATZEN
ELKARTEKO KORUA
- Maiatzak 24
SUSTRAIEN AHOTSA
- Maiatzak 25
ALAI ABESBATZA ETA
OROITH ABESBATZA
- Maiatzak 26
MUSIKA BANDA ILLUMBE
- Maiatzak 31
NAYADE ABESBATZA
- Ekainak 1
ETORBURU ABESBATZA
- Ekainak 2
ITSAS MENDI TXISTU TALDEA
ETA
KONSTANTZIA SANJUANDAR
BANDA

Jardunaldi hauek Itsas Mendi musika taldeak antolatzen dituen bertako kide batekin harremanetan jarri gara eta aurtengo partaideak onak izan direla eta jendearen erantzuna, orokorrean ona izan dela esan digu.

Datorren urtera begira jardunaldiak jarraitzeko eta talde berriak ekartzeko asmoa dute, baina egondako talde on bat berriro ekartzeko aukera edukiko balute ekarriko lukete.

Koxtapek antolatutako Uda 2002 Piraguismo ikastaroak

Ikastaro hauek igeriketa menderatzen duten 8-16 bitarteko haur-gazteentzat da.

Ikastaroen data eta ordutegiak:

Uztailaren 8tik 19ra:
10etatik - 11,30tara
Matrikulatzeko epea: Uztailak 5

Uztailaren 8tik 19ra:
11,45tatik - 13,15etara
Matrikulatzeko epea: Uztailak 5

Abuztuaren 1etik 14ra:
10etatik - 11,30tara
Matrikulatzeko epea: Uztailak 26

Abuztuaren 1etik 14ra:
11,45tatik - 13,15etara
Matrikulatzeko epea: Uztailak 26

Informazio gehiago:

Maripi
943. 52.92.91
620. 75.38.31

Inskripzio paperak:

Bar Sanjuandarra (Pasai Donibane)
Prezioa: 27 euro.

Oharra:

Plazak mugatuak dira eta inskripzio ordena errespetatuko da (inskripzio papera osaturik eta ordain agiriarekin).

Beharrezko materiala:

Bainujantzia, kamiseta, gomazko sandaliak.


Antolatzaileak:

Pasai Donibane Koxtape A.E (Piraguismo saila). Pasaiako eta Lezoko Udal Kirol Patroanatua. Gipuzkoako Foru Aldundia.



komikia

Aitor Puy



br-28

7

BARRUTIZ BARRUTI

br-28

6

BARRUTIZ BARRUTI

san pedro


Inauguratuak gu eta mundu zabaleko gutarrak!

San Pedro 2002 heldu da.

Ekainaren zazpian, arratsaldeko zazpitan, ospatu ziren San Pedroko berrikuntzen eta errotondaren inaugurazio-festak, izugarritzko euri zaparraden tartean. Herriko neskatxek bildutakoei agurra dantzatu ondoren, alkateak eta Zigorrek "San Pedroko arraunlariei omenaldia" eskultura desestali zuten, eta Ismael apaizak guztiok eta guztiak bedeinkatu zituen. Pixka bat beranduxeago, arkupetan, "Gutizi catering" entpresak gerturatu ginen guztioi txorizo, arrain, ardo eta sagardo gustagarriak aho puntan zerbitzatu zizkigun erritmo onean. Hala izan zena, hala izan dadila.



Ekainaren 22an Interruptus Antzerki Taldeak bere emanaldia eskaini zuen udal aretoan



Psikiatra baten eta bere pazienteen arteko harremana erakutsi ziguten. Gizartean ezer ez direneko sentazioa duten pertsona mota desberdinen isla garbia dira pertsonaia hauek. Eta lagundu behar dien psikiatra zein neurriraino

inplikatzeko den antzeztu zigun herriko antzerki taldeak.

Eskorpioaren gaua

Oraindik herrian gaez kamararik ikusi ez dugun arren, hau da ekainean zehar filmatzen ari den pelikularen izenburua.

Ekainaren 26ra bitartean, Donibane, San Pedro eta Donostian aritu dira lanean zinemagileak. Film honetan, 70. hamarkadan Asturiaseko arrantzale-auzo batean jazotako transexual baten hilketatik kontatzen da, eta gure herriak oraindik arrantzale kutsu hori gordetzen duenez, hainbat txokotan egon dira filmatzen. Marisol taberna, bi egunez, "Bar Escorpion" bilakatu zuten. Portu aldean dagoen egurrezko kaxa ingurua, borroka latz baten gunea izan zen. Torreatze egun oso batez aztoratuta egon zen bertan filmatutako sutearekin.

Eta kanposantua goiz oso batez eskenatoki bihurtu zen.

Eva Lesmes da, telebista autonomikoetarako egiten ari den film honen zuzendaria. Gijonen jaioa, AEBetan eta Madrilén hainbat ikasketak egindako dugu. Zine eta telebistan esperientzia handiko emakumea da. Hainbat filme labur eta luze zuzendu ditu, azken hauen artean 2000 urteko "El Palo". Telebistarako egindako lanen artean, "A las once en casa", "La casa de los lios" eta "Ana y los siete" zuzendu ditu.

Zuzendaritza-lana irakaskuntzarekin tartekatzen du. Asturias, Andaluzia eta Madrilén antolatzen diren ikastaro desberdinetan irakasle lana eginez.

Herrian filmatzen ari den "La noche del escorpión" en gidoiarengatik Zientzia eta Arteen Akademiak saria eman zion 2000 urtean. Igeldo komunikazioa, Barataria eta Pedro Costaren koproduzioarekin atera da aurrera filma.

Miguel Molina aktore espainiarra izan ezik, gainontzekoak aktore euskaldunak ditugu. Kike Diaz de Rada, Esther Uria eta Maiken Beitia, besteak beste. Baina guri, herriko aktore eta aktoreak dira interes berezia pizten digutenak. Hau idazten dizuen honek, rodujean egoteko aukera izan du eta harrobia badagoela ziurta dezake.

jar
ezazu
zure
iragarkia
Brankan

Mai Sol
GIZA HARREMAN ETA
KOMUNIKAZIO ZENTRUA
DONOSTIA
Seriotasun eta
zintzotasun profesionala

Bakarrik edo bikote beharrez al zaude? Zatoz guregana!
Taldekako aktibitateak antolatu, eta bikote egonkorra aurkitzeko aurkezpen indibidualak egiten ditugu.
(Solilik helburu serioak dituzten pertsona zintzoentzat)

tlf.: 902 101 493

(hiri barruko deia)

HAUXE BAI DELA MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN
DAUKA
San Pedroko Bodegoia

MUGURUZA ARDOAK
ARDOEN
ETA
RIBEIROEN
SALMENTA
hamaiketakoak
eta
meriendak
Urte Berri on!!
Torreatze kalea 8, behea 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

antxo

Euskara eta izerdia

Arnasa Euskara Elkarteak aurtengoan ere kuadrilen arteko desafia antolatu du. Ohikoa en bezala, San Ferminetako igandean egingo da desafia, eta beti bezala ikuskizuna ziurtatua dago. Hala ere, oraindik argitzeke daude zenbait zalantza: iritsiko al da norbait zerbait egiteko fundamentuz San Ferminetako iganderaino? Doping-aren aurkako kontrolik egingo al dute epaileek frogak dirauten bitartean? Presta daitezela badaezpada DYAKoak, ezbeharririk gertatzen bada.



San Fermin jai zoriontsuak opa dizkiegu antxotar eta bisitari guztieri. Ondo pasa, baina ez pasa! **Branka** aldizkaria.

Gora San Fermin!
Merceria
NAHIKARI
Festak ondo igarotzen, gure desiorik hobereena.
Eskalantegi 34, 20110 Pasai Antxo. Tlf.: 943 510 832

Foto Cano
REPORTAJES
BODAS
REVELADO 1 HORA
jai zoriontsuak igaro gora San Fermin!
Gure Zumardia, 30. 20110 Pasai Antxo. Tlf.: 943 52 43 54

Muebles **RUIZTEGUI, s.a.**
Altzariak
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnok.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANT XO


PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA
EGUNEKO MENUAK
ETA
BARRA ZERBITZUA
Eskalantegi, 118
Tfn: 943 520 770
Molinazo Auzoa
PASAI ANT XO

AMIO
Taberna
1934
Gure Zumardia 27-20110-Pasai (Gipuzkoa)

Hementxe dauz- kagu San Fermi- nak

Urtebete pasa ondoren ohartzeke iritsi zaizkigu San Ferminak. Aurtengoan ere egitarau zabala antolatu dute Jai Batzordeko kideek uzatilaren 4tik 8ra: danborradak, karruselak, entzierroak, Haurren eguna, Euskararen eguna, Preso eta Iheslarien eguna, Koadrilen eguna, Karroza ikuskizuna, Gazte Asanbladaren pilota txapelketako finalak eta Barrilada... hau zerrenda amaigabea!

Doakizuela antxotar guztieri agur bero bat eta igaro ditzazuela jaiak ahalik eta hoberen. Aupa San Fermin!



Antxo, etengabeko aldaketan

Hona hemen Lore Txorta Elkarteak zegoen eraikinetik zer geratu den hau bota ondoren (goiko irudia). Beheko irudian Hamarretxeta kaleko peatonalizazio lanak.



majestik
Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB: <http://www.iturgaiz.com>
E-mail: majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko.
Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.
ONDO PASA SAN FERMINAK

URT XINTXA
BULL
URT XINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark
Darts operadoreak
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Goiherri
C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANT XO

**MIMOS
TABERNA**
tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo


lehiaketa

irabazleak

Aurreko hilabeteko brankan egiten genizuen galderaren inguruan asmatzaileen artean **Marta Garcia** izan dugu irabazlea, Pasaia Alkateak era egokian sailkatu zituelako, hauen aginte epearen arabera zaharretik berrienera, erantzuna zehazki hau delarik: c) Eduardo Aseginolaza, a) R.L. Etxezarreta, e) J.X. Portugal, d) Bixen Itxaso, b) J.C. Alduntzin.

Marta Garcia eramango duen saria, Alberto Ladron Aranaren 'Xake Mate' elaberria izango da, ELKARLANEAN argitaletxeak eskainita, beti bezala.

Beraz, hadi jarraian datorren hilabete honetako galderari, animatu eta zorte on!



lehiaketa

galdera

Hauxe da hilabete honetako galdera:

Zenbat jai patronal ospatzen dira Pasaia barruti guztietan?

Erantzunak horrela helarazi diezaizkigukezue:

e-postaz: branka@euskalnet.net

postaz: branka pasaia herri aldizkaria, eskalantegi 38 behe, 20110, pasaia
telefonoz: 943 341 045ra deituaz

lehiaketa

saria


Honatx hilabete honetako erantzun irabazleak eramango duen liburuaren erreseina:

Izenburua: **Inesaren balada**. Egilea: **Hasier Etxeberria**. Bilduma: **Apirila Saila 7. Orriak: 164**. Data: 2002ko maiatza. Argitaletxea: ELKARLANEAN.

Abenturazko nobela bat da Inesaren balada, XVIII. mendeko kortsario lapurtarren mundura garamatzana, pirata-eleberrien lilura guztiaz baina berezitasun batekin: neskato bat da bertako protagonista. Inesa Indazubikoak ihes egingo du gurasoen estatutik, sortetxeari loturik iraun beste aukerarik ez baitzuen han. Pellot Kapitainaren bila joango da, harekin itsasoratzeke asmoz. Huraxe baitu bere eredu eta heroia, behin bakarrik ikusi duen arren, eta hark bezala ibili nahiko ditu itsasoak eta ezagutu munduak. Tartean, hala ere, hamaika ibilera eta katramila pasatu beharko ditu.

Estatu espainiar osoko hizkuntzetako obrak lehiatzen diren Apirila Sarian bigarren geratu da obra hau 2002an, eta aurki kaleratuko da katalanez eta gaztelaniaz ere (Jose Luis Padronen itzulpenaz azken hau). Abenturaren xarmaz gain baditu aipatzeko moduko beste dohain batzuk ere eleberriak: batetik, testuaren beraren edertasuna eta indarra; bestetik, gertakari bizien artean tartekatzen dituen gogoeta arin baina mamitsuak: bizitzaz, heriotzaz, bakardadeaz, maitasunaz... Horren guztiaren ondorioz, irakurle gazteentzat ez ezik edozein literaturazalerentzat izango da hau liburu gustagarri bezain gogoangarria.

Hasier Etxeberria Canales Elgoibarren jaio zen 1957an eta Hendaian bizi da gaur egun. Kazetari eta idazlea, kulturazko programa ugari zuzendu eta aurkeztu ditu telebistan, baita iritzizko artikulak plazaratu ere prentsa idatzian. Gaur egun, literaturari buruzko Sautrela saioa aurkezten du ETBn. Liburugintzan hainbat genero landu ditu: ipuingintzan Ipuin ezberdinak eta erregalokoak (1984), Alajaineta (1995) eta Karramarroaren aztarnak (1997) kaleratu ditu, haur literaturan Estatua baten historia (1988), sukaldaritzaren gainean Sukaliztegi partikularra (1996) eta Erabateko sukaldea (1998), eta eleberrietan, berriz, Mugetan (1989) eta Arrainak ura baino (1999). Landu dituen arlo guztietan irabazi ditu garrantzizko sariak: Rikardo Arregi kazetaritzan, Bilintx haur eta gazte literaturan, Gabriel Aresti ipuinetan eta Irun Hiria eleberrian, besteak beste.



Gazte trebeen bila gabiltza ikasketa erabilgarriak egiteko lanbide baliagarria lortzeko

ITURGINTZA



- >> Burdina, kobre eta polietilenoazko osasun-instalazioak.
- >> Hustubideak.
- >> Aparailuen muntatzea.
- >> Eztainu-Zilar, platex, berun eta zink soldadura.
- >> Berokuntza.

SUKALDARITZA



- >> Zopak, kremak eta barazkiak.
- >> Janarien manipulazioa eta ebaketa.
- >> Hondoak eta oinarritzko saltsak.
- >> Haragi eta arrain platerak.
- >> Postreak eta gozokiak.
- >> Menuak osatzea eta nutrizioa.
- >> Platerak aurkezteko moduak.
- >> Miniaturazko sukaldaritza.

Hamabi urtez buru-belarri gure herriko gazteekin: %70rrak lanean.

Lanbide ikasketan oinarrituta, prestakuntza orokorra eta tutoritzak azpimarratuz baita ere.

Lanbide Hastapeneko hartzailak: 16 urtetik 21era bitarteko Pasaia neska mutilak, eskolatik kanpo eta DBH Graduadorik gabe daudenak.

Ikastaroaren iraupena: bi urte (bi mila ordu).

Froga bat gainditu eta gero, maila erdiko zikloetan murgiltzeko aukera.

Ikastaroak bukatzen direnean eskualdeko enpresetan praktikak egiteko aukera izango da.

Non matrikulatu

Euskadi etorbidea, 27
behea. Trintxerpe.
TI.: 943 398 800



Pasaia Udala

lanean ari zarela, zure bizitza hobea izango da

Lau Pasaiak karroza

bihurturik

Antxoko San Ferminetan ohikoa den karroza ikuskizunean Pasaia izango da protagonista nagusia, bertan lau barrutietako gaiak jorratzen dituzten karrozak aterako baitira. Aurtengoa hemezortzigarren aldia da Antxoko Jai Batzordeak karroza eta konpartsa ikuskizun hau antolatzen duela, eta aurtengoan ere pasaitar nahiz bisitari guztiek uztaileen 7ko arratsalde umoretsu eta ikusgarri bat igarotzeko aukera izango dute.

Oargi-Alkartasuna Dantza Taldeak 60ko hamarkadan osatu zuen 'Amaia y Los Vascos' ikuskizunaren irudia.



Arestian esan bezala, karrozen ikuskizun honen gaia 'Pasaia' da: gure herria, gure jaiak eta kultura, eta hain ezaugarri bereziak dauzkaten lau barrutiak. Trintxerpetik, adibidez, 40 urte bete dituen Emakumeen Danborradak hartuko du parte, beraiekin batera Illunbe musika banda aterako delarik, eta hauek guztien atzetik barruti honi dagokion karroza ikusgarria aterako da.

San Pedrotik Artzai eta Iñudeak etorriko zaizkigu. Konpartsa honek 50 urte betetzen ditu aurten (15 urte berriro sortu zenetik). Sanpedrotarrekin batera Donostiako 'Belle Epoque'a nolakoa zen gogoraraziko digun karroza joango da.


Donibanetik berriz Arrantzaleen Danborrada eta Konstanzia musika banda hurbilduko dira uztaileen 7ko arratsaldean Antxoraino. Hauekin batera eraikiko

den karrozak Jaizkibek gertatu omen diren istorioei egingo die erreferentzia: sorginak, agerraldi misterioitsuak...

Antxori dagokionean bi gai jorratuko ditu karrozak: batetik Oargi-Alkartasuna Dantza Taldeak burutzen zuen 'Amaia eta Euskaldunak' ('Amaia y Los Vascos') ikuskizuna berregiten saiatuko da, 60ko hamarkadan osatu zuten ikuskizuna alegia. Bestetik, Antxon karroza ikuskizuna ospatzen deneko 18. urteurrenaren inguruko karroza bat ere aterako da.

Hauek guztiez gainera, Errenteria-Oreterako Alaia konpartsa, Donostiako Eskola Euskal Dantza Taldeko kideak, Buñuel, Haro, Larratxo, Egia eta Pasaiako buruhandiak, txistulariak, dultzaineroak, Musikal Pasaitarra, Pasai Txaranga eta beste hainbat ezusteko izango ditugun uztaileen 7ko ikuskizunean.

P
a
s
a
i
a
j
a
i
e
t
a
n
2002




Pasaiako Udala



betiko
musika





Jai zorientzuak opa
dizkizuegu pasaitar guztioi,
eta gogoratu ez daudenekin!



 **ERLANTZ**
PVC
Aluminiozko leihoak *Gora San Fermin*
Eskalantegi, 52
Telefona eta Faxe : 943 521 177
20110 PASAI ANTZO

 **SONESA
KIROLAK**
943 39 07 21
Euskadi etorbidea,7
PASAI - 20.110 - TRINTXERPE

DEGORO
vistete con decoro
hamarretxea 6. bajo • pasai antxo
Tel. 943 34 13 19

ATARI TABERNA
PATXIKU
BEREZITASUNAK
TXAKOLI
Donibane, 27 - Tel.: 943 512 589
PASAI DONIBANE

Cafetería Restaurante
TAKAROT

Euskadi Etorbidea, 33
Tfno.: 943 39 24 84 20110 TRINTXERPE

Viveros **IRAETA** S.A.
C/ San Pedro, 34 bajo
Tels.: 943 / 39 40 78 - 39 53 35
Fax: 943 / 40 00 46 - Oficina 943 / 39 88 51
PASAI SAN PEDRO
MERKA OIARTZUN
Puesto 8-9
Tel.: 943 493 400/ 943 493 418
www.viverosiraeta.com

URDAITEGI "BEREZIA"
JOSELE
Urdaitegi finean onena!
Zumalakarregi, 14
PASAI ANTZO

Tel.: 9432 510 382

SAN PEDRO ELKARTETXEA
Festa giro paregabea
AUPA SAN PEDRO!
San Pedro kalea, 20 behea
Tel: 943 39 41 64

illunbe
FERRETERIA - BURDINDEGIA
Euskadi Etorbidea, 51 - Tel./Fax: 943 396 504
Jaizkibel, 4 - Tel./Fax: 943 397 154
TRINTXERPE

SANITARIOS
ANTXETA
BAINOAK, ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
Almacén: Esnabide, 16 Tel.: 943 391 106 • Fax: 943 400 784
Exp. Baños: Esnabide, 72 Tel.: 943 400 914
PASAI SAN PEDRO
Letxunborro hiribidea 31-33 • Tel: 943 667 060
IRUN



Tecnosound
LAECOR S.L.
Andoni Linazasoro
EVALUACION Y CONTROL DE RUIDO
MEDICIONES Y CERTIFICADOS
DE AISLAMIENTO
ACÚSTICA EN EDIFICACIÓN
MAPAS DE IMPACTO
TRÁFICO, FÁBRICAS, ETC.
Hamarretxea, 25 • Tel. y Fax: 943 51 21 48 • MÓVIL 629 41 67 36
20110 PASAI ANTZO • GIPUZKOA

**DAX
TABERNA**
Pintxoetan berezitasuna
FESTAK ONDO PASA!
Euskadi etorbidea, 29 - Trintxerpe - Tel.: 943 399 006

**JAIETAN ONDO 😊
PASA, BAINA
ONDOKOAREKIN
😞 EZ PASA!**


Jaiak-euskaraz bizit

ARNASA-ABARASKA Euskara Elkarteak

**ZURE DENDA, TABERNA EDO ENPRESA
IRAGARRI NAHI DUZULA?
JARRI KONTAKTUAN GUREKIN!**

Kolore

> diseinu&komunikazioa



Kale Nagusia, 3 behe (Ganboa etxea)
20100 LEZO - Gipuzkoa
943 344 626
kolor@euskalnet.net

Horrelakoak ginen



Argazki zahar honetan azaltzen direnak Antxoko Lore Txorta elkarteak dira. Zehazki, irudi hau 1931ko uztailaren 19an hartuta dago hain juxtu, elkarte honen inaugurazioaren oroitzapenezko argazkia izango zenenean. Gogoratu behar dugu gaur egun Biteri plazarako bistak zituen Lore Txorta elkartearen egoitza bota egin dela bertan etxebizitzak eraikitzeko.

Ziur gaude hemen daudenetariko asko ezagutuko dituzuela, beraz, badakizue, gurekin harremanetan jarri guk ere jakin nahi baitugu zeintzuk diren antxotar hauek.

Iraganari begirada

TRANBIA ETA BIHURRIKERIAK

Urte asko dira gure ingurutik Tranbia desagertu zela. Azkenaldi honetan berriz, hirian zehar mugitzeko ibilgailurik onena dela-eta hainbat hirietan martxan jartzeko ikerketa eta egitasmoak burutzen ari dira.

Esan bezala, lehen Donostia eta Errenteria tranbiak lotzen zituen. Eta Antxotik igarotzen zenean hurren bihurrikerientzat tresna izaten zen. Tranbiak barrura sartzeko eskailera izaten zuen. Neska-mutilak tranbia martxan jartzen zenean bertara igotzen ziren. Abiadura gehiegi hartu aurretik askatu eta errepidera salto egiten zuten. Salto egiterakoan, lurrera ez erortzeko behar zen abilezia behar izaten zen. Honekin batera, ausartena trenetik jaisten zen azkena izan ohi zen, abiadura handienera salto egiten zuena alegia.

BORDAUNDI



Xosé Estévez: "Neofrankismo garai batean bizi gara, eta honi aurre egiteko erresistentziarako kultura bat sortu behar dugu"

TESTUA OLATZ MITXELENA

Xosé Estévez, aspaldi Galiziatik etorritako historialari eta idazlea dugu. Gazte zela, San Martín de Quiroga bere jaioterritik alde egin zuen euskaldun batekin ezkontzeko eta geroztik Hernanin eta Oirtzunen aurkitu du bizilekua. Egun, historia irakasten dihardu Nazareten eta Deustuko Unibertsitatean, eta, ikasleek tartea uzten diotenean, idazteari ekin ohi dio. Bederatzi liburu eman ditu argitara, azkena "A lagoa da memória", joan den maiatzean, Galizierazko Letren Egunean eta Fato Cultural Galego Daniel de Castelao elkartearen 25. urteurrenarekin bat eginez, Pasaian aurkeztu zuena. Liburuaz eta gaurkotasun handiko beste hamaika kontuz aritu gara kontu-kontari elkarrizketa ezin interesgarriago honetan.

Galizierazko Letren Egunean zure azken liburua "A lagoa da memória" aurkeztu zenuen. Zer kontatzen diguzu liburuan?


Liburuak Koldo Izagirrek idatzitako hitzaurre bat du. Ondoren, nire haurtzaro eta gaztaroko garaiak jasotzen dituzten hainbat kapitulu daude. Batean, nire bailararen eta herriaren (San Martín de Quiroga) sarrera geografiko-historiko moduko bat egin dut. Beste kapitulu batean, urtaroen zikloari jarraituz gauzatu ohi ziren ohitura, errito eta tradizioak bildu ditut. Beste kapitulu oso bat eskaini diet feriei, izan ere, feria hauek balore etnografiko handia zuten eta nekazari galegoen izakeraren ispilu moduko bat dira. Seminarioan sartu nintzeneko bizipenak bildu ditut ondoren. Bi seminario ezagutu nituen; umetan ezagututakoa oso zorrotza zen, pertsonaje diktatorial batek zuzentzen zuen. Ondoren ezagutuko nuen seminarioan, aldiz, galizieraren persekuzioaren inguruko nire lehendabiziko esperientzia izan nuen. Galiziera paletismoarekin parekatzen zuten, eta berau sunsitzeko zigorra erabiltzen zuten, galizieraz hitz egiten genuenok ogerleko bateko isuna ordaintzera derrigortzen gintuzten. Ogerleko ugari ordaindu izana dut gogoan. Garai hartan Madrilera joan nintzen lanera, eta han kontzientzia soziala eskuratzen hasi nintzen. Urtebetera seminariora bueltatu nintzen teologia ikasketa jarraitzeko. Errelatoa hor amaitu dut, nahiz eta jendeak hurrengo urteak kontatzeko eskatu di-

dan, ondoren arazo ugari pairatu nituelako nire kontzientzia soziala eta poitiko zela eta.

Zerk bultzatu zintuen liburua idaztera?

Hainbat arrazoiengatik ekin nion liburua idazteari; lehenik eta behin, euskaraz herri mina deritzona, eta galegoz "Saudade" izenaz ezagutzen dena, alegia, herriaren ausentziak sorrarazten duen mina. Saudadea gailentzen zitzaidan momentuetan erabaki nuen liburua idaztea. Bestetik, Galiziera bidaiatzen nuen bakoitzean, nik umetan ezagututako errito, jolas, tradizio eta ohiturak desagertzen ari zirela eta haiek inon jaso gabe zeudela eta testigantzarik ez zegoela ikusi nuen. Hori izan zen liburua idaztera animatu ninduen bigarren arrazoia.

Hirugarren arrazoia hizkuntzarena da; galiziera, euskara bezala, hizkuntza gutxitua da. Espainolaren inperialismo kultural xurgatzailea, egun, gero eta indar handiagoz ageri da, eta inmigrazioetik galizieraz idaztea, Galizian hizkuntzaren erabilera bultzatzeko erabilgarri suerta zitekeela pentsatu nuen. Azkenik esan, omenaldi hirukoitz bat egin nahi izan dudala liburu honekin; hasteko, Manuel Marias eta bere amazte Salletari, pertsona koherenteak izan direlako beti, beren familia, herria eta Galiziarekin. Nire herria ere omen-du nahi izan dut. Lugoko hegoaldean dagoen San Martín de Quiroga, hain zuzen, eta azkenik, Euskal Herria omendu nahi izan dut, arazo eta kritika ugari



jasotzen dituen momentu honetan, ene ustez herri honek etorkizun askea merezi duelako, eta bestalde, eta etorkina naizen aldetik, eskerrak eman nahi nizkiolako, familia, bizilekua eta lana eman dizkidan herriari.

Liburuaren aurkezpenean, memoria galtzea herri bati gerta dakioken gauzarik okerrenea dela esan zuen. Zeintzuk dira baieztapen hau defenditzeko arrazoiak?

Memoria galtzea herri zein pertsona bati gerta dakioken gauzarik okerrenea da. Pertsona baten bizitza erreparatzen badugu, ikusiko dugu, 20 urte betez geroztik, pertsona hori, batez ere, oroitzapenez bizi dela. Izan ere, oraina konturatzeko iragan egiten baita, etorkizunak zer emango digun ez dago jakiterik eta pertsona bakoitzak berak aldeztetik bizitako baina ez du ezagutzen. Norberak, izandako bizipe-

“BERE HISTORIA -HERRIAREN MEMORIA-EZAGUTZEN EZ DUEN HERRIAK AKATS BERBERAK ERREPIKATZERA KONDENATURIK DAGO.”

nen baitan eraikitzen du bizitzaren eta adimenaren egitura, eta norberaren etorkizuna, horien baitan eraikitako izakerak definituko du. Beraz, memoria eta oroitzapenak ezinbestekoak dira pertsona batek bere existentzia gara dezan. Hau guztia, kolektibitatearen eremura eramanez gero, gauza bera gertatzen da; bere historia - herriaren memoria- ezagutzen ez duen herria akats berberak errepikatzen kondnaturik dago. Memoriarik gabe herriak ez du etorkizunik, sus-trairik gebe ezinezkoa baita proiektu bat garatzea. Herriek mitoak dituzte. Mito horiek oroimenaren mugarriak dira, eta herria mugarri horien bidez kontzientziatu eta autoidentifikatzen da. Etorkizuneko

proiektuak bere nortasuna abiapuntutzat izanik soilik gara ditzake; pertsonen ilusioak ditugu eta herriek proiektuak.

Inperialismo kulturalaz askotan hitz egin duzu. Zure ustez, zer ondorio ditu fenomeno honek eta zer egin dezakete kultur eta hizkuntza minorizatuek fenomeno honi aurre egiteko?

Arazo zaila da hau. Imperialismo kulturala oso era sibilino eta azkarrean barneratzen da. Zabalpenerako tresnak kontrolatuak ditu. Beste garai batean, askoz errazagoa zen honi aurre egitea, gizarteak askoz itxia-goak zirelako, eta, familia eta heziketa balore transmisore baliogarriak zirelako. Egun, aldiz, hau ez da gertatzen. Masa komunikabideak, hau da, prentsa, irratia, baina batez ere telebista, kultura zehatz bat ezagutarazteko erabiltzen dira, eta kultura hori besteen kalterako gailentzen ari da. Kultura anglosajoiak hainbat balore inposatzen ditu: arrakasta erraza, pentsamendu bakarra, agresibitatea... Honi guztiari aurre egitea oso zaila da, baina ezin gara desanimatu. Neofrankismo garai batean bizi gara, eta honi aurre egiteko erresistentziarako kultura bat sortu behar dugu. Nola? Errezeta magikorik ez dago, baina nik neuk ahal dudan guztia egiten dut. Kontutan hartu behar dugu, halaber, historian zikloak izaten direla, eta zentzu horretan baliteke 50 urte barru egoera iraultzea. Azken batean, globalizazioaren aurkako mugimenduak inperio handiaren inposaketaren kontrako mugimendu iraultzaileak dira. Gainera, inperioak inoiz ez dira izan betierekoak; lehenago edo beranduago porrot egiten dute.


Inmigratioarena gero eta indar handiagoz ageri den fenomeno da. Gure gizartearen kultura aniztasuna konturan hartuta, zein da, zure ustez, hizkuntza gutxituen normalizazioaren aldeko lana kultura aniztasunarekin uztartzeko bidea?

Nire iritziz, etorkin batek egin behar duen lehendabiziko gauza bere jatorrizko kulturaren kontzientzia izatea da.

Etorkinek zuhaitzen modukoak izan behar dugu: sustriak lurrari atxikituak eta adaskak aire guztiei irekiak. Amurizak bere bertso batean dio: "Galiziaren sustriak adarrak euskadin/ zuhaitz ederragorik ez zitekeen egin" Metafora honek baliogarria beharko luke izan etorkinentzat. Bestalde, heziketa kontua ere bada. Etorkinak errealitate berrira moldatu behar du. Integrazioa zaila da eta niri gustatzen ez zaidan kontzeptua da, txarra dela uste dudalako. Integrazioa baino adaptazioaz hitz egin behar da. Nire ustez, eta labur bilduz, desberdinak izateko eskubidea dugu, baina baita jasotzen gaituen kultura eredura moldatzeko beharra ere. Hau eginez gero, bi nortasunen arteko uztarketa gerta daiteke. Gainera, etorkinarentzat, zenbat eta gehiago sakondu jatorrizko nortasunean, orduan eta errazagoa izango da adaptazioa. Egun Euskal Herrian hobekien txertatu diren Galziarrak, galiziar abertzaleak izan dira, hona iritsi aurretik nazio kontzientzia bazutelako.

Zein izan da Pasaiaiko herriarekin izan duzun harremana?

Ni sekula ez naiz bizi izan Pasaian, baina, Euskal Herriari iristean, hauxe esan zidaten: Pasaian bazela auzo bat, non bere kaleetan galiziera nire herrian baino



gehiago entzungo nuen. Hara hurbildu eta egia zela konprobatu nuen. Ondoren jakin nuen Daniel de Castelaok "Sempre en Galiza" liburuan aipatzen zuela Pasaia; baita guda zibilean marinel galiziarrek Euskal Gudarostean lau batailo anarkista sortu zituztela ere... Pasaian jendea ezagutzen hasi nintzen, eta 1977. urtean kultur elkarte bat sortu genuen bertan. Urte hartan ez ziguten utzi Castela izena jartzen elkarteari eta Saudade izena jarri genion, hurrengo urtean, behin betikoz, Daniel de Castela izena hartu zuen arte.


Fato Cultural Galego Daniel De Castela Kultur Elkar-teak 25 urte bete ditu aurten. Zeintzuk dira zuen elkar-tearen helburuak eta zeintzuk zuen jarduera nagusiak?

Bi helburu ditugu: Galiziarrek jatorrizko kultura bat duten kontzientzia har dezatela eta jendeak euskal kulturarekin elkartasunezko jarrera bat izan dezan lortzea.

Ekitaldiei dagokienez, esan, urtean bi egiten ditugula: Galizierazko Letren Egunarekin bat eginez, kultur astea antolatzen dugu eta Magostoarekin bat eginez, karga sozial eta politikoa izan ohi duten bes-telako ekimenak antolaten ditugu; meza, Castelaori omenaldia, konferentziak, eta itsasoari lore-eskaintza marinel gehiago "jan" ez ditzan eskatuz. Azken hau da jende gehien biltzen duen ekitaldia.

Garai batean, bazkide gehiago ginen elkartean, baina hauek pixkanaka Galiziara bueltatu dira. Bestalde, dirulaguntzak ere gero eta murriztagoak dira. Nik idatzitako liburuaren salmentarekin (6 Euroren truke) autofinantzazioa indartu nahi dugu. Elkarrizketa honen aukera aprobetxatu nahi nuke kulturarekiko interesa duten galziarrak elkartean parte hartzerantz, elkartean beren jatorrizko kulturaren sakontzeko aukera izango dutelako eta euskal kulturarekiko elkartasuna sustatzen lagunduko dutelako.

“INPERIOAK INOIZ EZ DIRA IZAN BETIERE-KOAK; LEHENAGO EDO BERANDUAGO PORROT EGITEN DUTE.”



Nola baloratzen duzu Pasaian galiziarren eta euskaldunen arteko elkarbizitza?

Nire ustez sinbiosi oso ona gertatzen da. Adaptazioa erabatekoa da. Galegoen seme-alabak euskaldunak dira, eta botoak aztertuz ere igarri da gehiengo abertzalea dela. Integrazioa, kasu honetan, soziala eta politikoa da.

Zure ustez zeintzuk dira Euskal Herriak pairatzen duen gatazka politikoa konpontzeko eman beharreko oinarriko urratsak?

Konponbide zaila ikusten diot. Nire ustez, oinarrikoak diren bi kontzeptu gauzatu behar dira: negoziatioa eta elkarbizitza. Herri batek estatu baten egiturari kabidari ez duela uste badu, eta horrek gatazka sorrarazten badu, konponbiderako bide bakarra hitz egitea da. Gaur egun, baina, estatuko gobernuak ez dago hitz egiteko prest, beraz, erruaren zati nagusia elkarbizitza ukatu eta intolerantzia praktikatzen duenarengan erortzen da.

Gatazkaren errua ETari leporatzen zaio, baina komeni da gogoraztea espainol eta euskaldunen arteko kontentzio-soa ETaren jaoitza baino antzinagokoa dela; 100 urte baino gehiago ditu. Hastapenak XVIII mendean gertatu ziren

Felipe V. arengatik. Lurraldetasunarena ere konponbide zaila duen arazo da. Mugen dinamika puskatu behar da, baina presiorik gabe.

Nire ustez, momentu honetan, ETaren su-eten bat onuragarria litzateke gatazkaren konponbiderako. Honekin ez dut esan nahi su-eten horrek mugagabea izan behar duenik edo eta elkarbizitza su-etenik gabe has ez daitekeenik, baina momentu honetan ETak su-eten bat eskainiko balu, ez lukete izango hemen gertatzen ari denaren errua zeini leporatu. Nire ustez onuragarria litzateke.

Zer duzu gustuko en zure barrutiko jaietatik?



1 Mikel Salazar.
18 urte. Ikaslea.

Gazte asanbladak antolatzen duen barrilada, gazteen artean giro ona sortzen da eta.

2 Xabi Aranburu.
17 urte. Ikaslea.

Niri jaietako juergak dira gehien gustatzen zaidana. San Pantaleon eguna ere oso gustokoa dut. Eta Amnistiak arku azpian antolatzen dituen kontzertuak ere.

3 Kristina Gago.
35 urte. Ostalaria.

Umeen arteko Salbio-La Torre futbol-partidua. Giro polita egoten da eta izugarri ondo pasatzen dut. Gainera, aurten, Salbiok irabaziko du.

4 Xebe Díez.
36 urte. Aktore eta kazetaria.

Herriko afari eta bazkariak, batez ere kalean egiten direnean.

5 Joxan Eizagirre.
46 urte. Mekanikaria.

San Juan bezperako gabean herrian sortzen den giroa oso gustokoa dut. Eta gero San Pantaleon eguna ere.

6 Iñigo Salterain.
18 urte. Ikaslea.

Arnasa Euskara Elkartek antolatzen dituen kuadrilen arteko herri kirolak, giro ona sortzen dutelako, eta kuadrilek parte hartzeko aukera dutelako.

7 Eneko Lilly.
19 urte. Ikaslea.

Gazte asanbladak antolatzen duen pilota txapelketa, herrian giro paregabea sortzen delako.

8 Migel Mari Torrea.
Telebistako errealizatzailea.

Goizeko ordu txikitan lagunekin bueltatxo bat eman eta txokolatea hartu ondoren sokamuturra...eta gero gerokoak.

9 Juan Moncada.
20 urte. Igeltsaria.

Gehien gustatzen zaidana zezenak dira.

Lanbide Heziketa Tailerrak: beste aukera bat

Lanbide Heziketa Tailerrek 14 urte daramate lanean Pasaiaiko gazteekin. Gaur egun, bi tailer mota burutzen dira Pasaian: sukaldaritza tailerra eta iturgintza tailerra. Tailer hauek ikasketetan arazoak izan dituzten gazteetara bideratuak daude batipat, haueri ikasketetan aurkitu ez duten motibazio eta autoestima maila hein batean berreskuratzeko aukera ematen diena, lana aurkitzeko aukera emateaz gain. Ikasturte amaieran egon arren, hortxe aurkitu ditugu Pasaiaiko gaztetxo hauek su eta hodi artean, lanbide bat ikasten, beren etorkizuna eraikitzen. Hona hemen, programaren zuzendariaren, gazteen eta irakasleen hitzetan, jaso ditugunak.



>NIEVES ALEGRIA. TAILERREN PROIEKTUAREN ZUZENDARIA.<

"Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailetik datorren programa baten barruan kokatzen dira Pasaian Ongizate Zerbitzuetatik bideratzen diren tailer edo ikastetxe hauek. Programa honen helbururik nagusia ikasketekin arazoak zeuzkaten ikasleei beste irtenbide bat bilatzea zen, lan esparruan kokatzen zena. Orduan, ikasketei uko egiten zieten gazte hauek lan bat izan zezaten prestatzea zen eta da erronka. Pasaian zehazki programa honek 14 urte daramatza fruituak ematen, urtetan zehar hainbat lanbide ikasketak eskaini dituelarik Udalak.

Gaur egun, 16 urtetik 21 urte arteko gazteentzat zuzendua dago programa eta bi tailer eskaintzen dira: sukaldaritza tailerra eta iturgintza tailerra. Tailer hauetan parte hartzen duten gazteek duten irteera garbia da: lan mundua edo berriz ere ikasketak mundua.

Tailerren ardatza praktikan kokatzen da, hau da, ematen den materiaren %70ak zentzu praktikoa du. Honek gaztearen baitan motibazio bat lortzen du 'zerbaiterako balio duen zerbitu' egiten dutenaren sentsazioa baitute tailerretan murgilduak dauden bitartean, hainbeste urtetan liburu artean egon eta gero. Gainera, autoestima arazoak ere izaten dituzte tailerretara hurbiltzen diren ikasleek, ikastetxetan 'tonto', 'alfer' edo ezer gutxirako balio ez dutenaren papera barneratu baitute.

Tailerretara etorri, eta autoestima arazo hauei buelta ematen hasten dira, behingoz zerbait probetxagarria egiten ari direla ikusten dutelako. Tailerretan lanbide zehatz baten inguruan, Pasaiaiko kasuan sukaldaritza eta iturgintza, jasotzen duten heziketaz gain, badira irakasten zaizkien beste zenbait gauza ere: ordainagiriak osatzeko ikasketak, lan-hitzarmenen ingurukoak, irakurketa, idazketa, INEM eta Langaira ere bisitak egiten ditugu...

Enprekin harreman sare haundi bat ere osatu dugu azken urteotan. Tailerretan ikasketak burutu ondoren, enpresetara joaten dira gazteak praktikak egitera hiru hilabetez. Denbora tarte honetan, jarraipen zehatza egiten zaio ikasle bakoitzari ea nola lan egiten duen eta zein jarrera duen aztertzeko. Hiru hilabete hauek pasa ostean, ikasle gehienek lan-kontratu bat lortzen dute.

Pasaian eskaintzen diren ikastaro hauek eskualdean eskaintzen direnekin osagarriak dira. Gure herrian bi tailerreko eskaintza badago, Errenteriako Udalak hiru tailerrek egiten du lan, Pasaiaikoetatik desberdinak, eta bakoitzak nahi duenaren arabera izena eman dezake tailer batetan edo bestean.

Urte hauetako balorazio bat eginenez guztiz positiboa da. Gazte asko eta askok lortu du lan egonkor bat hemen jasotako hezkuntzaren emaitza bezala. Gainera, hauetako zenbaitek beren enpresa sortzeko aukera izan dute ere. Duela urte batzuk ezer gutxi egiteko gai ziruditen gazteak gaur egun lanean aurkitzen dira, sendi bat osatu dute eta azken finean bizitza honetan bere tokitxo aurkitu dute. Hori guretzat oso pozgarria da.

Bestalde, hemendik emakumei deialdi bat

>SUKALDARITZA TAILERRA. IRAKASLEA ETA IKASLEAK.<



■ Aitor Goienetxea. Irakaslea.

"Taldeka lan egin dugu eta orokorrean atera daitekeen ondorioa guztiz positiboa da. Honera datozen ikasleak oso gaztetxoak dira, eta nolabait esateko pixka bat galduak aurkitzen dira ez baitaude ideia gehiegirik zer izan edo zer egin nahi dutenaren inguruan. Ondorioz, hasieratik zeuden ikasleetatik guztiek ez dute urtea amaitzerik izan, arazo desberdinak direla medio, baina gehiengoak hemen jarraitu du denbora pasa ahala ikasten zuena erabilgarri ikusten zuelako. Klaseen %70a praktikoa izan da: jakiak nola txikitu, garbitasuna nola mantendu... Janariak nola prestatu ere ikasten hasi gara: nola frijitu, nola egosi, denetatik pixka bat. Orokorrean sukaldari laguntzaile batek bete behar duen papera irakasten saiatu gara tailerraren hasieratik hona, eta gainera edonora joanda ere, lan ona egiteko moduan daudela uste dut aurrean prestatu dituzdan gazte hauek. Gainera, hemen ikasitakoa etxean ere praktikan jartzen dute, eta dagoeneko etxe arrunt batetan jaten den edozein menu ondo prestatzeko gai dira. Irtenbideari dagokionez, nahi duenak lana aurkituko du sukaldaritzaren munduan, beraien baitan dago hori."



■ Itsaso, Beatriz eta Iker lanean.



■ Beatriz. 17 urte. Ikaslea.

"Orain arte ikasi duguna oinarritzko sukaldaritza izan da, labanak eta nola erabili jakiak txikitzeko. Hasiera batetan jakina da inor ere ez dela trebea ezagutzen ez duen lan edo ofizio batetan, horretarako egon gara hilabete hauetan zehar tailer honetan."



■ Itsaso. 17 urte. Ikaslea.

"Batez ere jakiak txikitzen eta sukaldea garbi mantentzen ikasi dugu. Gehien bat praktikoak izan dira tailer honetan ikasten eman ditugun orduak, baina hala ere teoria pixka bat ere jaso dugu. Lagunak ere egin ditut edo guztion artean koadrila majo bat osatu dugu, giro ona izan dugu urtean zehar."



■ Iker. 16 urte. Ikaslea.

"Urritik daramagu sukaldaritza tailer honetan lanean eta ikasten. Sukaldaritzan oinarritzkoenak diren gauzak ikasi ditugu: jakiak nola moztu, eta batez ere sukaldea txukun eta garbi nola mantendu. Gure arteko giroa oso ona izan da, eta ikasteaz gain farra ederrak bota ditugu elkarrekin."

>ITURGINTZA TAILERRA. IRAKASLEA ETA IKASLEAK.<



■ Mariano Herrador. Irakaslea.


1985 urtetik daramat gaztetxoekin lanean, eta aurtengo esperientzia, aurreko urtetan bezala, ona izan da, nahiz eta jatorri eta mota aunitzeko gazteekin lan egin dudana. Gainera, tailerretan dauden gazteek oso lan perspektiba ona dute, %90ak aurkitzen baitu lana hemendik atera eta gutxira, iturgintza arloan lan eskaera oso handia dagoelako.

Askotan, gaztetxoak hona iristen direnean ez dute oso garbi zertara datozen, 'zer arraio izango da hau?' galdera egiten diote euren buruari, eta nik horrela esaten diet: *ez al duzue egunero ura dutxarako, komunean edo beste hainbat gauzetarako erabiltzen? Ba arraskatik ura beti atera dadin ikasi beharrekoa ikasiko duzue hemen.* Oso gustura gaude egiten dugun lanarekin. Gainera, ekainaren 30etik aurrera hemen egon diren ikasle guztiek 3 hilabeteko praktikak hasiko dituzte zenbait enpresatan eta garai hau pasa ondoren, tailerretan egon diren ikasleen %90ak lan-kontratu bat izango du.

Praktiketan hasten direnetik, praktiketan ari den enpresarekin batera gaztearen asteroko jarraipen bat egiten dugu, batez ere lan mundurako egokipena nola doan aztertzeko. Lan-kontratua lortzerakoan, jarraipena hilabeterokoa da.




■ Etorkizuneko iturginak.




■ Andres Manuel. 17 urte. Ikaslea.

"Asko ikasi dugu hilabete hauetan zehar baina noski, normala denez lanean hasten garenean askoz ere gehiago ikasiko dugu. Era guztietako hoditeri instalakuntzak nola egiten diren ikasi dugu neure kideek eta nik. Esperientzia oso ona."



■ Jon. 18 urte. Ikaslea.

"Gas eta bainurako instalakuntzak egiten ikasi dugu, baina honetaz gain ikasi dugun gauzarik garrantzitsuena 'lan egiten' ikasi dugula izan da. Esperientzia majoa izan da orokorrean."



■ Oroitz. 17 urte. Ikaslea.

"Esperientzia ona izan da niretzat. Ur bero eta ur hotzeko instalazioak egiten ikasi dugu. Gainera gure arteko giroa oso ona izan da, eta horrek egunerokotasunean laguntzen zaitu."

zuk zeuk!

MUSIKA
SELEKTAH KOLEKTIBOA
'Esperientzien etorbideetatik'



Hip hopa bizi duen laukote honek dagoeneko 2. lana kaleratu digu Metak disketxearen eskutik. Aurreko lanarekin konparatuz (badakigu konparazioak gorrotagarriak direla, baina zer egingo diogu...) lan borobilagoa dela esan daiteke, eta horretarako dituzten kolaborazio ugariak asko lagundu dute: El Payo Malo, Anika, Yacine eta 7 notas 7 colores taldeko Eddie la sombra (azken abesti tranpan agertzen dena). Conexión, Gora gaileta edo Hitzek min hartzen duten tokia bezalako kantek erakusten dute laukote honen abilitatea hitzen errimekin jolasteko, erritmo eta base dotoreez lagunduta.

Azken batean, benetan Hip Hoparen arima eduki eta sentitzen dugunontzat ezinbesteko diskoa, musika estilo handi honek euskaraz etorkizuna izango duen seinale. Errespetua anaiak!



BENAT GANTXEGI

ZINEA
'DUEL IN THE SUN'
Zuz.: King Vidor. Akt.: Jennifer Jones, Joseph Cotten, Gregory Peck. Estatu Batuak, 1946.



Western pelikula ezin hobea dugu hau. Western-ak atsegin dituenak ikusi beharko lukeen filmea. Produktzioz A. David O. Selznick izan zen, Oscar anitz irabazi zituen *Lo que el viento se llevo* filmearekin. Zuzendaria King Vidor izan zen, famatua *Guerra y Paz* filmatzeagatik beste askoren artean.

Pelikula hau erabat berritzailea izan zen garai hartan. Horren zergatia, aski erraza da, filearen heroia eta akzioaren emailea emakumea baita. Jennifer Jones, kasu honetan emakume mestiza bat, eta familia zuri baten barruan sartuko da. Horren ondorio bi anaien arteko tiramirak ikusiko dira emakumearen erruz. Honekin guztiarenkin, gai asko landuko dira: arrazakeria, latifundismoa versus industrializazioa, ondra...

Izenburuak dioen bezela, asken eskena eguzkipean izango da. Eskena hori, aditzera ematen digun sexu karga guztiagatik filmeari indar guztia emango dio. Urte dexente beranduago, *Giro al infierno* pelikulak bukaera berdintsua filmatzen filme honi omen egingo dio.



UNAI BERASARTE

MUSIKA
MALLACAN
Kontzertua Pasai Antxon, uztaillaren 6an Gure Zumardian.



Oraingo honetan gure artean Mallacan dugu, Aragoiko talderik aipagarrienetarikoa. Bere zuzeneko doinu bortitzak eta normalean hemendik entzuten ez den musika motak lotura aberasgarria osatzen dute talde honen musikan. Horrela, aipatu beharrekoak dira ska, reggae, rap eta bestelako doinuei ematen dieten erabilpena, ekologia, feminismoa eta herrien kulturen aldarrikapenetan zentratzen direlarik Mallacan talde honen mezuak entzulegoarengana era zuzen batetan iristeko.

Talde honek dagoeneko 2 diska plazaratu ditu: 'Luen d'o paradiso' eta 'Chera, chera' izenekoak.

Beraien ezaugarriak kemena, sentimendua, indarra eta konpromisoa dira. Zuzeneko festa bihurtzen dute jendearekin berehala bateginez, hau delarik taldearen ardatzik nagusia.

Horregatik, guztiori gonbitea egiten dizuet datozen Antxoko San Fermintan entzun ditzazuen, uztaillaren 6an Gure Zumardian eskainiko duten kontzertuan hain zuzen ere.



IÑAKI RUIZ

Loradenda MAIALEN
jai zoriontsuak opa dizkizuegu GORA SAN FERMIN!
Ezkontzarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua
Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTXXO

EKILORE
OPARIAK
Gora San Fermin!
Zumalakarregi, 8 - Tel.: 943 522 655

EL @ S E G U R O
JALETAN ERE,
PIXA
KOMUNEAN.
BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZJA
MAIATZAREN LEHENA 3. 20110 PASAI ANTXXO, GIPUZKOA
943 520828.

• Especialistas en Aire Acondicionado y Climatizado

Talleres SANFERMIN

C/ Blas de Lezo, 12 - 20110 Pasai Antxo
Tel. 943 52 56 65 - Fax. 943 52 56 65

Venta y Asistencia Técnica de:
BOSCH SERVICE
Accesorios y Recambios Bosch
Electricidad del Automóvil
Inyección Diesel
Inyección de gasolina
Blaupunkt Autorradios

Electricidad y Electrónica del Automóvil

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu Pasaitar guztioi

branka Pasaiako
herri-aldizkariak
jai zoriontsuak
opa dizkizue
pasaitar guztioi!
Ondo igaro ditzazuela jaiak!